

## Hitzaurrea

Gaur egun, dibulgazio-lanak funtsezkoak dira unibertsitateko irakasleen eta ikertzaileen zereginen, gizarteari bere inbertsioaren emaitzaren zati bat, gutxienez ere partzialki, itzultzeko modu gisa. Bidezkoa dirudi, beraz, euren xede diren gizartean duten eragina kontuan izanik baloratzea, ahalik eta objektiboan diren irizpideekin.

Hasteko, dibulgazio-lanak oro har bi mota nagusitan zati daitezke, hau da, **denboran zehar irauten dutenak** eta irauten ez dutenak. Lehen kategorian oso gauza desberdinak sartzen dira, hala nola: liburu bat, podcast bat edota telebista-programa bat; bigarren kategorian, berriz, taberna batean emandako hitzaldi bat, uda-ikastaro batean emandako eskola bat edota tuit bat. Bereizketa hori garrantzitsua da, zeren eta denborak hainbat merezimendu desegin egiten baititu desagerrarazi arte. Adibidez, duela 7 urte konferentzia bat emateak ez luke merezimendua izan behar gaur egun, bai ordea liburu bat idatzi izanak. Beraz, zereginaren antzintasuna aldagai kritikoa da.

Bestalde, arrazoigarria dirudi tratamendu berdina ez ematea dibulgazio-jardueretan **parte-hartze errekurteak** izateari eta parte-hartze puntualari. Era berean, egindako **lanaren kalitatea** oso garrantzitsua da, baina alderdi hori interpretaziotara irekiago dago. Edozein kasutan, gutxieneko kalitate galdagarri bat dago, dibulgazio-ekintzaren aurretiazko iragazkien forma hartzen duena, adibidez, hautatzaile bat (editorea, konferentzia-antolatzailea eta abar) egotea, edo bestela, batez ere hautatzaileak ez dagoenean, irizpide erabat kuantitatiboak erabiltzen dira, izan ere, azken buruan, dibulgazioa jendearengana iristeko egiteko da, eta gero eta jende gehiago hobeto.

Dibulgazio-lana baloratzeko gaur egun kontuan izan behar den funtsezko osagai bat Interneten presentzia orokortua eta egiten den erabilera da. Horrek beharrezko bihurtzen du zientziaren dibulgazioan zorrotasun-irizpide minimo batzuekin diharduten **bitartekoen erregistro fidagarriak sortzea**. Iragazteko kanpo-iturri hori gabe kasu askotan oso zaila da zeren aurrean gauden baloratzea. Logika bera aplikatzen zaie mintegi, konferentzia, ikastaro, topaketa eta antzekoei. **Kanpo-iragazketako funtzio** hori Unibasquek ziurtatutako webguneek egiten dute, baldin eta frogatzen badute erregistroen kalitatea eta mantentzea ziurtatzeko prozedurak dituztela, adibidez [DivulgaSfera](#), UPV/EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak mantentzen duena.

Beraz, aurkezten dugun baremo-proposamenak **ahalegina, erregularitasuna eta kalitatea saritu nahi ditu**, eta horrela, **dibulgazio zientifikoa sustatu** nahi du, unibertsitateko ikertzaileen eta irakasleen eguneroko jardunaren zati izan dadin.

## Baremoa

**A) Liburuak eta kapituluak** (soilik dibulgaziokoak, ez ordea espezialistentzat direnak edota testuliburuak)

Puntuak lor ditzakete ebaluazio-dataren aurreko 10 urteko epearen barruan argitaratu badira, ISBN badute eta gutxieneko banaketa bat (hala salmentak nola deskargak) egiaztatzen badute.

Liburuetako kapituluaren kasuan, puntuazioa kalkulatzeko, liburu osoari dagokion puntuazioa kapituluaren kopuruarekin zatitzen da eta pertsona ebaluatuek liburu horretan dituen kapituluaren kopuruarekin biderkatzen da.

**B) Prentsa idatzia** (egiaztatutako eta izen-onoak diren eta edizio profesionalizatua duten idatzizko komunikabideetan)

Puntuak lor ditzakete ebaluazio-dataren aurreko 5 urteko epearen barruan argitaratu badira, ISBN edo ISSN daukaten komunikabideetan, betiere komunikabideak gutxieneko zirkulazio bat egiaztatzen badu. Puntuazioan, era berean, artikuluen luzera kontuan izango da.

**C) Telebista- eta irrati-programak** (egiaztatutako eta izen-onoak diren eta edizio profesionalizatua duten ikus-entzunezko komunikabideetan)

Puntuak lor ditzakete ebaluazio-dataren aurreko 5 urteko epearen barruan modu publikoan, hala irekian nola telebista ordainduko erregimen batean (zuzena edota eskaripekoa), emititu diren eta dibulgazio zientifikoan diharduten programek edo programen atalek. Kategoría honetatik kanpo uzten dira Internetarako espezifikoki sortutako programak, eta baloratzen dira programaren/atalaren lanketan betetako zeregina(k), haren(haien) iraupena, telebista- edo irrati-etxea eta emisio-ordua.

**D) Komunikabide digitalak eta sare sozialetako jardura**

**D.1) Komunikabide digital kolektibo idatziak, edizio profesionalizatuarekin, eta zientziako komunikabide gisa erregistratuak.**

Idazpenei (artikuluei) prentsa idatziaren irizpideak aplikatzen zaizkie (B atala), hedapenari dagokionez Interneten ezaugarrietara egokituak. Ezaugarrien artean honako hauek daude: komunikabideak egiaztatutako antzintasuna, zenbat denboraz jardun duen, eta laguntzaile kopurua.

**D.2) Ikus-entzunezko komunikabide digital kolektiboak, edizio profesionalizatuarekin, eta zientziako komunikabide gisa erregistratuak.**

Puntuak lor ditzakete irrati- eta telebista-programen irizpideak (C atala) betetzen dituzten programek (bideo-kanalak edo antzeko podcastak aldizkako argitalpenarekin), Interneteko ezaugarrietara egokituta badaude. Komunikabidearen egiaztatutako antzintasunaz, bere jardun-denboraz eta laguntzaileen kopuruaz gain, beste ezaugarrietako bat sarbide librea eta doakoa da. Pasarte puntualen kasuan, puntuazioa proportzionala izango da.

**D.3) Komunikabide digital auto-editatuak eta zientziako komunikabide gisa erregistratuak: blogak, vlogak, podcastak**

Finkatuta dauden komunikabide profesionalizatuentzat goiko D.1) eta D.2) ataletan adierazitakoa aplikatzen da, baina gutxieneko zirkulazio eta hedapenari lotutako betekizunak murrizten dira.

**D.4) Microblogginga zientziako komunikabide gisa erregistratutako sare sozialetan: Twitter, Instagram, Facebook**

Puntuak lor ditzakete espresuki dibulgazio zientifikoa egiten duten sare sozialetako kontuek bakarrik, hau da, euren argitalpenen % 10a baino gutxiago dibulgazioaz bestelako gaietara bideratzen dituztenek. Egilearen akreditazioa, antzintasuna eta jarduera-maila, berriz ere, baloratu beharreko parametroak dira.

**E) Materialen sorkuntza (bideoak, infografiak, bideojokoak, app-ak eta abar)**

Puntuak lor ditzakete erlatiboki duela gutxi (azken 10 urteetan) sortu diren eta hedapen kontrolatu minimo bat duten materialek. Proiektuan parte hartu duen pertsona bakoitzak puntuazio proportzional berdina jasotzen du, zuzendariak salbu, azken horren puntuazioa handiagoa baita.

**G) Lortutako sariak.**

Puntuagarritzat jotzen dira dibulgaziora espezifikoki bideratuta dauden, erlatiboki duela gutxikoak diren eta erakunde publiko batek edo fundazio publiko edo pribatu batek emandako sariak badira. Enpresek edo elkarteek emandako sarien kasuan, erakunde horiek oinarri zientifikoa edo teknologikoa duten jardueretan edo horien komunikazioan jardun beharko dute.

**H) Jarduera presentzialak eta interaktiboak**

Ondoren adierazten diren jarduerak eta beste jarduera asimilagarri batzuk biltzen dira: zientzia-azokak, atek zabaltzeko egunak, zientziaren asteak, txango didaktikoak, erakusketak, konferentziak eta mahai-inguruak (uda-ikastaroak barne), dibulgazioko ikuskizunak, eta lehiaketen antolaketa. Merezimendutzat jo ahal izateko, ez da nahikoa parte-hartzea puntuala izan bada.